

KARTA BAT IDATZIKO DUT:

Pitzaturiko umontzi,
bat-bateko esnaldi minkorra,
nahasiriko garrasi bereziak.

Odol zipriztinez bordaturiko
presakako eremuetara hator,
bizitzako oihanpe ezezagunera.

Egunak,
gaua mailukari duen honetan,
argiaren ferekatzaile bihurtuko hau,
eta haren pirpiria izango duk.

Lantzen zoak zizela
hire izatearen oroitarria.

Logure gabeko bakardadea
etsipen sakonenean pausatua.

Amets gaiztoak
ezin osaturik dabilta.

Sargoriaren izerdiak
ito ditu.

Txistu hotsaren gezia (Joan-txistu ote)
ate joka.
Isildu da gauaren marmarra.

Hauspo beltzak,
hodei-itzalak uxatu ditu.
Suak laineza hartu du.

Sakabanaturiko errautsak,
egunsenti epelaren diosala.

Krasketaren begitik
otzantasunaren otoitz usaina.

Amets amaieraren ziriak
pitzatu du makar iluna.
Aharrausi egin du gau nareak,
gorputza luzatuaz.

Gure amak sua piztu du haizez orraztutako egun mimatuan.

Lurraren erraietatik,
goroldiopeko lur emankor.
Zer da, ezer eragozteko gai dena?
Beldurraren hatsa nioke,
besterik gabe, nioke.

Eta besterik ezean, niokenaren hatsa
eragotzailea da.

Gainera datorkidan lokatza-lurra
hegan zetorkiguk, goitik.
Ezaguna diat giza-miseria diogun eremu “partekatu honetan”.

Beti teilatu berdinetan erortzen duk.

Fernando Pessoaaren astoa biraka zebilek etxeko baratzean.
Iraun egiten dik etenik gabeko sokak.

Ez dut ezer ikusi:

“Aditutakoak ez aditu” eta “ikusitakoak ez ikusi”.

Horrelako jardun-bidea, irabaztea zela zioten bakearen izenean.

Hiladakoaren itzala,
askotan itzaina da.

Zuk diozunaren itzaina.

Zerurik ederrena ez al da, hiltzeko etsi ona?

Hildakoan izango al naiz
sortu aurretik nintzena?

Jaiotza beste ezer ez da jatorria.

Abaroan nauzue,
loaren ikonoan etzanda,..

NORBAITEK ERANTZUN BEZA.

Josu Baez